

Elkarrizketa. Jexux Ozaeta. Laguna

[Egile ezezaguna]

Aiurri, Zenbaki berezia 1, 1997: 14-16.

Betidanik ezagutzen du Jexuxek Martin. Etxeberrietan jaioa da bera, eta Martin txiki-txikitik Zumeara bizitzera etorria. Inguru hartan makina bat aldiz arituak dira elkarrekin jolasean; beste makina batean elkarren kontra, Etxeberrieta eta Zumearen arteko futbol partiduak jokatzen zituztenean esate baterako. Baina Ozaeta eta Ugaldetarrak gerra lehertuz gero izan zuten trataturik handiena. Andoain okupatu zutenean beste familia batzuekin batera egin zuten ihes "ezer hartu gabe, etxea eta denak atzean utzita". Bizkaia aldera jo zuten, Gernikako bonbardaketak Bilbon harrapatu zituen Ugaldetarrak; Ozaetarrak, berriz, Mundakan. Eta handik ere ihesi egin behar; Asturiasetik nola-hala lortu zuten untxi ingeles batean sartuta Frantziara iristea –Jexuxek hamabost urte zituen arren, gogoan du oraindik barku handi haren izen arrotza–. "Ahaztu? Horiek ez dira bizitza guztian ahaztutzen", azpimarratzen du.

Martinek hiru urte egin zituen Frantzian lehendabizi eta Ipar Euskal Herrian gero. Artean Pello eta Anttoni, Martinen gurasoak, eta Ozaetarrak Katalunian hartu zituzten errefuxiatuta; Jexux eta hiru senideak Tarragonan, eta Ugaldetarrak Bartzelonan. Garai hartan, bisita ugari egiten zizkioten elkarri. Maiz izaten ziren ugaldetarrak Tarragonan eta Ozaetarrak Bartzelonan. "Han bazen beti norbait. Andoaingo kontzejal hura bakarrik geratu zen, eta Pellok egiten zuen representazioa. Ni Bartzelonan joanda nago berarekin horrelako lana egitera; hanketik gaizki zebilen hura, eta Bartzelona soldaduz josia..."

Urte t'erdi egin zituzten han, nazionalek Bartzelona ere hartu zuten arte. "Bartzelonatik honera etorrita kalean geratu ginen Anttoni, ama eta ni. Don Luis Perurenaren etxean egon ginen bi edo hiru egunez. Gero, Anttoni Mariaren etxera joan zen, koinatarenera; eta gu berriz, Isidroneko etxera, relojeruarenera. Kataluniatik etorri eta gutxira presentatu zen Jexux Junta Militarrean, soldadutzarako garaiean baitzen. "Hemezortzi egunez eduki ninduten preso; gero bidali ninduten Iruñara, handik Elizondora, Oiartzunera...". Bost urte luze egin zituen soldadu. "Hiru kinta egin genituen; Gibraltar hartu behar omen zela eta..."

Oiartzunen zela joan zen Martinengana, mugara. "Ni larunbatetan etortzen nintzen. Ama eta Anttoni beti egoten ziren elkarrekin, eta esan zion Martin zetorkiola Frantziatik. Eta garai hartan laguntzeko gutxi zegoen, beldurra handia zen. Bueno, ba esan nion, sargentuari permisua eskatuko niola eta ematen bazidan nik lagunduko niola".

Hala joan ziren Anttoni eta Jexux Irungo mugara, Martinen bila.

Harrezgero elkarrekin ibili ziren Andoainen. Garai hartan futbola zuen Jexuxek dibertimendu nagusia: 30 urte arte aritu zen Euskaldunan defentsa postuan. Martin ere izan zen futbolista; extremo postuan jokatzen zuen. "Korrikan ere ondo egiten zuen harek, e!", gogoratzen du Jexuxek garai haietaz hitz egiten ari garela. "Aita ere korrikalaria zuen, premio asko irabazitakoa, eta Martin ere ibili zen karreretan".

Jexuxek ez du gogoan koadrilan asko ibiltzen zirenik. Gizonduta ziren ordurako, eta nesketan ibiltzea gustokoagoa zuten, nonbait. "Martinek bazuen andregai Billabonan, nik ere banuen adiskidea..."

Biak lagun minak ziren ordea, eta elkarrengandik bereiztea gogorra egin zitzairen. "Donostiara joan ginen buelta bat ematera eta atera genuen fotografia. Nik esaten nion "hil aber gogoratzen haizen ni ere hara eramatea... Gaztea nintzen eta joango nintzen orduan".

Distantzian elkarrengandik urrun, oso urrun, egon arren, etenik gabe jarraitu zuten elkarren berri izaten. Karta pila idazten zizkieten handik Jexuxen amari. "Oraindik badaukat karta pila ederra gordea..."

Venezuelatik etorri eta Ugaldetarrak Hondarribian bizitzen jarri zirenean laguntasuna gertutik gozatzen jarraitu dute biek ala biek.

Neumonia txar batek jota Jexuxek UVIn egin zituen 43 egunetan beti izan zuen Martinen bisita. Egun batean bai eta bestean ere bai joaten omen zen ospitalera lagun zaharra ikustera.

Orain, gutxiago ikusten dute elkar, Andoaindik Hondarribirako bidea egitea ere ez baita erraza kotxerik gabe. Telefonoz behar adina hitz egiten dute, ordea. "Zer modu hago Martin? ni ondo eta hi Jexux?".